2025EKO OTSAILAREN 25EAN UDALBATZARRAK EGINDAKO EZOHIKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko bostak eta hogeita hamabi minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohiko bilkura egiteko:

1.- ZEGAMAKO UDALAREN TITULARTASUNEKO KONTSUMO-GUNEAK, EKOIZPEN-ITURRI ENERGETIKO BERRIZTAGARRI ETA SEGURUEN BIDEZ, ENERGIA ELEKTRIKOZ HORNITZEKO KONTRATUAREN BALDINTZA BEREZIEN PLEGU ADMINISTRATIBOAK ETA PLEGU TEKNIKOAK ONARTZEA ETA LIZITAZIOARI BIDE EMATEA, HALA BADAGOKIO.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Iker Zubeldia Katarain jn. (EH Bildu).

ZINEGOTZIAK

Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).
Nagore Arrieta Aranza and. (EH Bildu).
Denis Pérez Apaolaza jn. (EH Bildu).
Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).
Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).

EZ ETORRITAKOAK

Ainhoa Herrasti Areitio and. (EH Bildu). Ez etortzeko arrazoiak azaldu dira.
Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen). Ez etortzeko arrazoiak azaldu dira.
Alina Dumitru and. (Zegama Lantzen). Ez etortzeko arrazoiak azaldu dira.

Idazkaria, Eztizen Agirresarobe Pineda.

1.- ZEGAMAKO UDALAREN TITULARTASUNEKO KONTSUMO-GUNEAK, EKOIZPEN-ITURRI ENERGETIKO BERRIZTAGARRI ETA SEGURUEN BIDEZ, ENERGIA ELEKTRIKOZ HORNITZEKO KONTRATUAREN BALDINTZA BEREZIEN PLEGU ADMINISTRATIBOAK ETA PLEGU TEKNIKOAK ONARTZEA ETA LIZITAZIOARI BIDE EMATEA, HALA BADAGOKIO.

Iker Zubeldia Alkateak azaltzen du orain arte argindarraren kontratazioa Kontratazio Zentraletik egin izan dela, Iberdrola izan delarik enpresa esleipenduna. Aipaturiko esleipen horren iraupena amaitzear dagoela eta, aldaketa baten beharra somatu da, energia berriztagarrien apostuan murgiltzeko hautua egin nahi delarik. Gainera, Goiener enpresari egin zaizkion kontsulten ondorioz, ikusi da aukera handiak daudela hornidura elektrikoaren gastua nabarmenki murrizteko. Besteak beste, Goienerren kw-ko prezio finkoak gaur egun Udalak ordaintzen dituenak baino baxuagoak dira eta prezio indexatuaren modalitateari

SINA78b19038-6229-45e9-a0a7-22653779ab6e

dagozkionak, are baxuagoak. Hori dela eta, formula indexatuaren alde egitea proposatzen da, azalduz kontratua urtez urte luzatuko denez (gehieneko 5 urteko iraupenarekin), aukera handia dagoela prezioak berrikusteko, behar izatekotan.
Gaiaren konplexutasuna kontuan hartuta, Nazertek enpresa izan da plegu administratibo eta teknikoen zirriborroak prestatu dituena.
Bestalde, aipatu da plegu horiek kontratazioan euskararen presentzia bermatu eta areagotzea dakartela.
Prozedurari dagokionez, kontratazio harmonizatua dela azaldu du Idazkariak eta horrenbestez, prozedura ohi baino luzeagoa izan daitekeela (esaterako, eskaintzak aurkezteko epea luzeagoa delako).

Behin lizitazioaren alderdiak mahai gainean jarrita, bertaratutako udalbatzarkideek aho batez onartzen dituzte Zegamako udalaren titulartasuneko kontsumo-guneak ekoizpen-iturri energetiko berriztagarri eta seguruen bidez energia elektrikoz hornitzeko kontratuaren baldintza berezien plegu administratiboak eta plegu teknikoak, lizitazioari bide emanez.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko bostak eta berrogeita hiru minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, ... orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan ..... zenbakitik ..... zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, ... zenbakitik ..... zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2023Ko .....k .....

O.E./ VºBº
ALKATEAK/ EL ALCALDE

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene ..... folios, numerados del ..... al ..... en número de papel timbrado y del ..... al ..... en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a ..... de ..... de 2023.

IDAZKARIAK/ LA SECRETARIA

EKS | CSV: **SINA78b19038-6229-45e9-a0a7-22653779ab6e**
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=02510
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=02510

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	Udalbatzarra 2025eko otsailak 25 ez ohikoa
CSV/EKS:	SINA78b19038-6229-45e9-a0a7-22653779ab6e

Sinatzailea 1 / Firmante 1: IKER ZUBELDIA CATARAIN - 72478431A
Data / Fecha: 2025/02/28 10:53:18

Sinatzailea 2 / Firmante 2: EZTIZEN AGIRRESAROBE PINEDA - 72528573M
Data / Fecha: 2025/02/28 12:05:34